Berdintasuna

# OPARITZEKO

gida



## 1 JOLASA

Era askean eta berez sortzen da. Gozamena eragin eta ametsen antzeko funtzioa betetzen du; nahiak gauzatzeko mekanismoa da. Ezagutzarako, ikasketarako eta adierazpenerako bide nagusia da.

## 2 JOSTAILUAK

Jolasaren euskarriak dira. Tresna fisikoak, funtzio zehatz baterako eginak edo umeek espontaneoki sortuak.



## 3 BERAZ

Jolasa ikasteko egoera naturala da, eta jostailuak, jolasa aberasteko baliabideak. Jolasen bitartez, jostailuek indartzen dituzten gaitasun eta balioak berenganatzen dituzte umeek. Arauak eta portaerak ikasten dituzte.

## 4 ZEIN DA JOSTAILU ONA?

Jostailuak, berez, ez dira onak edo txarrak; egokitasuna erabileraren araberakoa izango da.



## 5 ADI!!!

Jolas eta jostailu desberdinak erabiltzean generoari dagozkion ezaugarriak ezagutuko dituzte neskek zein mutilek. Estereotipo sexistak barneratu, erreproduzitu eta iraunarazten dira.

Berdintasuna

# OPARITZEKO

gida

## JOLAS ETA JOSTAILU SEXISTAK

· Ez dute aukerarik ematen bai neskek bai mutilek jolasteko.

· Gizona edo emakumea izaten "irakasten" dute.

· Genero-desberdintasunak markatzen dituzte.

·Egungo genero-zatiketa erreproduzitzen dute.

## JOSTAILU ETA JOLAS BELIKOAK

Edota jarrera bortitzak bultzatzen dituzten jolasak ekidin, indarkeria-adierazpena sustatzen dutenak (pistolak, tankeak, armak...); komunikazioa, elkarrenganako ardura, kooperazioa eta konfiantza sustatzen dituztenak hautatu.

## JOLAS ETA JOSTAILU BERDINZALEAK

·Gaitasun anitzak bultzatu eta osotasunean garatzen laguntzen dute.

·Neska-mutilen arteko parte-hartzea eta lankidetza sustatzen dituzte.

· Arazoak era eraikitzaile, sortzaile eta baketsuan konpontzen laguntzen dute.

· Neska eta mutilen protagonismo-maila bera da.

· Ingurunearen zaintza eta pertsonen bizitzarako zein bizikidetzarako eredu positiboak sustatzen dituzte.

· Ez dituzte ezaugarri, esperientzia, genero eta sexu-identitate edo gaitasun desberdinak dituzten kultura, familia eta pertsonenganako aurreiritziak sorrarazten.

Euskal kultura eta euskarazko komunikazioa sustatzen dituztenak

# EDOZEIN JOSTAILU EROSI AURRETIK,

hurrengoa galdetu zeure buruari:

1. Jostailu honekin neskek zein mutilek jolastu dezakete?
2. Jostailu hau aproposa da haurrak duen adinerako? Adinaren araberako gomendioak al ditu?
3. Jostailu honekin gustura egongo al da?
4. Behin eta berriro jolas al daiteke berarekin?
5. Interesa piztuko al dio? Minutu batzuetarako bakarrik ala hainbat ordutan jolasteko modukoa al da?
6. Erraz apurtzen da? Luzaroan iraungo al du?
7. Jostailu honekin bere lagunekin jolastu ahal izango du era kooperatibo batean eta gainontzeko haurren berezitasunak errespetatu?
8. Jostailuaren bidez haurrak irudimena landuko al du?
9. Erabilera anitzeko jostailua al da?
10. Lagunduko al dio haurrari estereotipo sexistak ez errepikatzen?
11. Jostailu hau nire seme edo alabarekin konpartitu ahalko dut?
12. Kultur aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten duen jostailua da?
13. Telebistan iragartzen dute? Zer-nolako iragarkia da? Estereotiporik gabeko iragarkia da? Igarritakoa betetzen du?
14. Erabiltzeko gomendiorik al du? Nolakoak dira gomendio horiek?

Erantzun gehienak baiezkoak badira, seguruenik, aukeratu duzun jostailua egokia izango da.